



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Derioko udalerrian obra txikietatik sortzen diren eraikuntza eta eraiste-hondakinak kudeatzea arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onarpena.

Derioko Udaltzakerak, 2024ko azaroaren 26an egindako ohiko bilkuran behin-behingo onartu zuen Derioko udalerrian obra txikietatik sortzen diren eraikuntza eta eraiste-hondakinak kudeatzea arautzen duen ordenantza. Erabakia 2024ko abenduaren 12ko 239. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurrean jartzeko emandako epea igaro ondoren alegaziorik edo erreklamaziorik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betikotzat jotzen da automatikoki. Horrenbestez, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Derion, 2025eko otsailaren 3an.—Behin-Behineko Idazkaria, Beatriz Garate Cortabarría

**DERIOKO UDALERRIAN OBRA TXIKIETATIK SORTZEN
DIREN ERAIKUNTZA- ETA ERAISTE-HONDAKINAK KUDEATZEA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****ZIOEN AZALPENA**

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzea, eta bertan aipatzen da lizentziak emateko edo baimena behar duten jarduketetarako prozedurak lotu behar direla eraikuntzaren hondakinen kudeaketarekin eta ondo kudeatzen direla bermatzeko aukera ematen duen fidantzak ezartzearekin. Era berean, obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak ezartzen dira aipatutako dekretuan, eta udal-ordenantzetara jotzeko aipua egiten da bertan obra txikietatik sortzen diren eraikuntza- eta eraiste-hondakinak kudeatzea arautzeko dagokionez, kasuan kasu, egon litezkeen mugekin, tasekin eta fidantzekin batera, eta udalerrri bakoitzaren egoerarekin eta kasuistikarekin bat etorritz.

Horrenbestez, Derioko Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4 a) artikuluan ematen zaion erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeke ahalarekin bat etorritz, obra txikietatik sortzen diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzea arautzen duen ordenantza hau onetsi du.

1. artikulua. — Xedea eta aplikazio-eremua

1. Ordenantza honen xedea da obra txikiek hiri-garbiketaren prebentzioari eta horietatik sortzen diren eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeaketari dagokienez bete behar dituzten baldintzak arautzea.

2. Udalaren esku-hartzearen xedea izango da aipatutako jardueren ondorioz Derioko udalerrian sor daitezkeen eragin negatiboak arintzea, bai eta hondakinen kudeaketa desegokia saihestea ere.

2. artikulua. — Obligaziodunak

1. Obligaziodun solidarioak izango dira lizentziaren titularra eta obren sustatzailea, kontratista eta azpikontratista.

2. Hondakinen kudeatzaileak araudi orokorrean eta ordenantza honetan berariaz esleitzen zaizkion betebeharrak bete beharko ditu, solidarioki obren lizentziaren titularrarekin, sustatzailearekin, kontratistarekin eta azpikontratistarekin batera, baldin eta udal-administrazioari informazioa emateko betebeharrak betetzen ez badira, zeinak Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatu baitira, edo dagokion baimenaren baldintza gisa ezarri baitira.

3. artikulua. — Obren baldintzak

1. Honako hauek hartuko dira obra txikitzat: etxebizitza partikular, saltoki, bulego edo zerbitzuen sektoreko higiezin batean egiten diren eraikuntza- edo eraiste-lanak, baldin eta teknikoki errazak badira eta eraikuntzari dagokionez eta ekonomikoki garrantzi txikia badute. Gainera, ezin izango dituzte aldatu etxebizitzaren eta lokalen kopurua, erabilera erkideko instalazioak, erabilera eta bolumena, eta ez dute profesional titulatuak sinatutako proiekturik beharko.

2. Soltean hornitutako materialak eta obren hondakinak edukiontzian bota beharko dira.

3. Berariaz debekatuko da mota horretako edukiontzietan hondakin arriskutsuak (hodi fluoreszenteak, pinturak eta abar) eta hondakin organikoak botatzea.

4. Obren albo-alboko azalerek garbi egon beharko dute beti, eta edozein motatako hondakin-materialik gabe.



5. Titulartasun pribatuko edo publikoko lurzatiak aldi baterako erabili ahal izango dira materialak eta hondakinak pilatzeko eremu gisa, betiere, jabearen eta, kasuan kasu, administrazioaren baimena izanez gero eta ezarritako fidantza eratu ondoren, dagozkion udal-zerbitzuek ezarria, kasuan kasu.

6. Aipatutako jardueretan sortzen diren hondakinak baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio, eta hark egiaztatuko du hondakin horiek haren instalazioetan eman dizkiotela, betiere, horretarako baldintzak betetzen badituzte eta obra txikietatik badatoz.

7. Legarrak, hareak eta solteko beste agregakin bat hornitzeko, garraio-lanak udalerriko lurralde-eremuan egiteko, eraikuntza- eta eraiste-obretako hondakinen kudeatzaile baimenduak egin beharko du.

4. artikulua. — Eraikuntza- eta eraiste-obra txikien hondakinak kudeatzea

Ordenantza honetan xedatutakoa, hain zuzen ere, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikuluan eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 2. artikuluan, 3. artikuluan xedatutako salbuespenekin, eta eraikuntza- eta eraispentxikien ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan definitutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinei aplikatuko zaie.

5. artikulua. — Fidantza

1. Hauxe izango da fidantzaren zenbatekoa:

- 50 euro, 3.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obretarako.
- 150 euro, 3.000,01 eta 6.000 euro bitarteko aurrekontua duten obretarako.
- 210 euro, zenbateko handiagoko obretarako.

2. Obligaziodunak aldeztu behar dira eskatuta eta obran sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatutakoan (dokumentuen bitartez, hurrengo artikuluan ezarritzen denari jarraituz) bakarrik bueltatuko da fidantza. Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen ez bada, fidantza jartzen duen entitateak aukera izango du hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezko jarduerak egiteko —modu subsidiarioan—, eta hori ezingo balitz, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduerak egiteko bideratu lezake fidantzaren dirua, hargatik eragotzi gabe hondakinei buruzko araudian ezarritako zehazpen-araubidea aplikatzea.

6. artikulua. — Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak

1. Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak ekoizten dituzten eta horien jabe diren pertsonak betebeharrak hauek dituzte:

- a) Hondakinen ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan, gutxienez:
 - Hartzeko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, hartzeko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).
 - Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.
 - Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.
- b) Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haien sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.
- c) Ekoizleak eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio udalari.

2. Udalari dagozkio eraikuntza- eta eraiste-hondakinen ekoizpena, edukitzea eta kudeaketa zaintzeko eta ikuskatzeko zereginak.

**7. artikulua. — Eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeatzaileen betebeharrak**

1. Hondakinei buruzko legerian jasotako betebeharren kaltetan joan gabe, eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeatzaileek honako hauek bete beharko dituzte:

- a) Eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeatzaileek artxibo bat izango dute. Artxi-boan datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: egindako lanetan sortutako hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, garraibidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira.

Artxibo kronologikoan, hondakinak sortzeko eta kudeatzeko eragiketen dokumentu bidezko egiaztapenean jasotako informazioa gehitu beharko da.

Gutxienez, hiru urtean eduki behar da informazioa artxibatuta.

- b) Eraikuntza- eta eraiste-hondakinak ematen dituen jabeari edo kudeatzaileari luza-tzea hondakin horiek beren instalazioetan eman izana egiaztatze dokumentua.

8. artikulua. — Obren hondakinak behin-behinean gordetzea

1. Honako hauek erabili ahal izango dira hondakinak behin-behinean gordetzeko: industria-zakuak, euste-elementuak edo ontzi malguak eta birziklagarriak, zeinak metro kubiko bateko edukiera edo edukiera txikiagoa izango baitute.

2. Obra-edukiontzia izango da eraiste- eta eraikuntza-obretako hondakinen kudeatzaileak erabiltzen duen edukiontzien sistema espezifiko oro. Obretako material eta obra-hondakinak biltzeko edo gordetzeko erabiltzen diren garraio bereziko ibilgailuen gainean kargatzeko eta deskargatzeko diseinatutako ontziak dira, eta itxita eta estalita egon beharko dute, gutxienez, lan-ordutegitik kanpo. Kanpo geratzen dira iraulki-kamioiak eta antzekoak.

Obretako edukiontzietan une oro egon beharko dira jasota datu eta elementu hauek, kanpoaldean eta primeran ikusteko moduan:

- a) Enpresa arduradunaren edo jabearen izena edo sozietate-izena eta telefonoa.
- b) Eraiste- eta eraikuntza-obretako hondakinen kudeatzailearen zenbakia eta edukiontzia-identifikazio-zenbakia jasota dituen plaka bat.
- c) Obra egiteko eta edukiontzia jartzeko baimena ematen duen udal-baimenaren kopia.

Bide publikoan instalatzen diren edukiontzia kendu beharko dira, baldin eta garbi-garbi edo itxura egokian ez badaude edo obran bertan ekoizten ez diren beste hondakin batzuk badituzte. Edonola ere, duten edukiera gainditzen dutenean, edukiontzia ezin izango dira bide publikoan egon, eta une horretan bertan aldatu beharko dira.

3. Obra-lizentzien titularrek, sustatzaileek eta kontratistek solidarioki arduratuko dira betebeharrak horiek betetzeaz, bai eta obretako edukiontzia-identifikazio-zenbakia ere, baldin eta hondakinei buruzko legerian aipatzen den informazioa hornitzeko betebeharrak betetzen ez baditu.

4. Obretako edukiontzia espazio publikoan jarri ahal izateko, nahitaezkoa izango da bide publikoa okupatzeko udal-lizentzia edukitzea, eta dagozkion zerbitzuek eman beharko dute. Bestalde, fidantza edo abala eratzeko eskatu ahal izango da euste-elementuak bide publikotik kentzeagatik edo garbitzeagatik aurreikusitako daitezkeen kostuei dagokien zenbatekoarekin.

5. Obretako edukiontzia instalatzeko eta kentzeko lanak herritarrei eragozpenik sortu gabe egin beharko dira. Obretako edukiontzia erabiltzeko edo manipulatzeko orduan, edukia bide publikoan isuri gabe egin beharko da edo haizeak altxatu edo sakabatu ezin duen modu batean.

6. Mota horretako hondakinak biltzeko edukiontzien interes orokorrari kalteak eragiten badizkiote edo larrialdi-egoera sortuz gero, zerbitzu publiko bat ematea oztopatzen edo eragozten duten osasun-arrazoiak badaude, udalak bide publikotik kendu ahal izango ditu eta horretarako gaitutako instalazioetan sartu. Edukiontzia-identifikazio-zenbakia emango dio horren berri.



7. Aurreko puntuan aipatu diren inguruabarrak gertatzen direnean, kapitulu hone-tan ezarritako betekizunak eta baldintzak ez betetzeagatik gertatzen badira, edo bide publikoan instalatutako edukiontzia identifikatu gabe badago, orobat, kendu eta gorde egingo da, baina kentzea behin-behineko neurria izango da zehapen-ahalmena egikaritzea arautzen duen araudian xedatutako ondorioetarako. Hain zuzen ere, titularrari eskatu ahal izango zaizkio, bai kentzearen eta gordetzearen kostua, bai barruan zeuden hondakinak biltzeko eta tratatzeko zein kaltetutako eremu publikoa egokitzeko, dagoz-kion zehapenak alde batera utzi gabe.

8. Identifikatuta ez dauden edukiontzia, titularrak erreklamatzeko ez dituenen, hi-ri-hondakintzat hartuko dira, indarreko legerian ezarritakoaren ondorio guztietarako.

9. Industria-zakuak eta beste elementu edo ontzi batzuk erabiltzen direnean, itsas-garriekin, plakekin eta abarrekin jasoko da artikulua 2. puntuan adierazitako informa-zioa.

9. artikulua. — Zehapen-erregimena

1. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, honako haue-tan xedatutako zehapen-erregimena aplikatuko da: Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea; Euskadiko In-gurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea; Lurzorua kutsatzea saihe-s-tu eta kutsatutako garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea. Horrez gain, orde-nantza honetan berariaz araututa ez dagoen beste guztirako, aplikatu beharreko legeria orokorrean eta sektoreko legerian xedatutakoa bete beharko da.

2. Alkatetzak izango du zehapenak ezartzeko eskumena, beste organo eta admi-nistrazio batzuen eskumenei kalterik egin gabe, aplikatu beharreko sektoreko legeriare-kin bat etorritik.

3. Arau-hausteen erantzule izango dira egiteagatik edo ez-egiteagatik arauak haus-ten dituzten edo horietan parte hartzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkatetzak izango du ordenantza hau interpretatzeko, gauzatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko ahalmena.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean sartuko da indarrean.